


Dantzariak parte hartze aktiboa izan zuten jaialdian. GOTZON ARANBURU




Abesbatzek ere euren garaia irudikatu zuten. GOTZON ARANBURU



Ia 900 lagun batu ziren kiroldegian ikuskizuna ikusteko. XABIER BARRIOLA



Egokitu zitzaien garaia irudikatu zuten dantzen bidez. ERRIKARTE AGIRRE



Talde guztiak batuta ere egin zituzten emanaldiak. GOTZON ARANBURU

Historia musikaz janzten denean

Legazpi » Herriaren historiaren garai garrantzitsuenak musikaz azaldu zituzten '400 urtez aske' dinamikaren jaialdi nagusian.

ALEX AREIZAGA

Larunbat iluntzean goia jo zuen 400 urtez aske dinamika, Legazpin egin zuten jaialdi erraldoiaren. Urte hasieratik garatzen datozen dinamika honen barnean ikuskizun gogoangarria burutu zuten Legazpin, herriko kultur tal-

de gehienen parte hartzearekin. Herritarrek ez zuten hainbeste hiletetan zehar prestatu den ikuskizuna galdu nahi izan eta ia 900 lagun elkartu ziren Bikufia polikiroldegian, gutxi falta izan zen ikuskizunerako sarrera guztiak agortzeko.

Jaialdian parte hartu zuen talde bakoitzari Legazpiren historian garrantzitsua izan den garai edo gertaera bat irudikatzea egokitu zitzaion, garaiko jantzi eta guzti. Herriaren historia musikarekin eta dantza eginez kontatu zuten. Ia bi ordu iraun zituen jaialdiak, eta antolaketa onari esker denbora nahi baina azkarrago igaro zen.

Une hunkigarriak

Eskenatokian ikusitakoaz gain zerbait nabarmendu behar bada,

hori Musika Eskolako ikasle eta irakasleek egindako lana da. Pisu handienetarikoa zuen ardura euren gain hartu zuten, hauek izan baitziren narratzaileen hitzei zuzenean musika jartzearen ardura-dunak. Musika bandan ere izan zen azken orduko aldaketarik, zuzendaria aita izan baitzen larunbatean eta hori dela eta, ezin izan zuten jaialdian parte hartu; bere ordez Edurne Zabalo aritu zen.

Unerik hunkigarrien artean, Hertzainak taldearen Aitormena

abestia entzun zenekoa aipa daiteke, euskerak 80. hamarkadan izan zuten berpiztea irudikatzen lagundu zuena, nahiz eta jaialdi osoa nabarmendu beharko litzatekeen, egindako lan guzti horren ondoren, modu ezinhobean atera baitzen dena.

Orohar, herriaren historiaz janzteko aukera paregabea izan zuten larunbatean legazpiarrek, musikaz eta dantzaz eta euren herrikerikideen eskutik osatutako irakaspenera magiko batekin.